Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2437

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 21ekoa, Energia eta Meategien zuzendariarena, Cepsa Gas Licuado SA-ri Antoñanan (Kanpezuko Udalerria, Araba), petrolioaren gas likidotu kanalizatua biltegiratzeko, eta banatzeko nahiz hornitzeko sareko instalazioak eraikitzeko administrazio baimena ematen diona.

Espediente zenbakia.: 01-38068/CG-f-2011-1-PML/mmb.

Pedro Pablo Zubillaga López jaunak, Cepsa Gas Licuado SA-ren izenean eta hura ordezkatuz, Antoñanan (Kanpezuko udalerria, Araba) gas propano kanalizatua biltegiratzeko, eta banatzeko nahiz hornitzeko sareko instalazioak eraikitzeko baimena eskatu zuen 2010eko abenduaren 28an.

Espediente honi ebazpena ematerakoan, honako aurrekari hauek kontuan hartu eta aipatu beharko dira:

AURREKARIAK

Bat.– 2010eko abenduaren 28an, Cepsa Gas Licuado SA enpresak administrazio-baimenaren eskaera aurkeztu zuen Antoñanan (Kanpezuko udalerria, Araba) etxerako eta merkataritzarako gas propano kanalizatua biltegiratzeko, eta banatzeko nahiz hornitzeko sarea ezartzeko.

Bi.– Nahitaez jarri da jendaurrean erakusgai Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko (1998ko urriaren 8ko BOE) 34/1998 Legean aurreikusitako legearen araberako baldintzei eta bitartekoei jarraiki: 2011ko otsailaren 11ko EHAAn argitaratu da, baita 2011ko otsailaren 18ko ALHAOn eta 2011ko urtarrilaren 27ko El Correo egunkarian ere, eta jendaurrean erakusgai jarri da Kanpezuko Udaletxeko iragarki-taulan 2011ko urtarrilaren 24tik 2011ko otsailaren 28ra arte. Aurrekoarekin batera, proiektuaren separata igorri zitzaien Kanpezuko Udalari.

Jendaurrean erakusgai egondako aldian Arabako Lurralde Ordezkaritzan ez da proiektuari eginiko alegaziorik aurkeztu, ezta eskaerarik edo proiekturik ere Cepsa Gas Licuado SAk aurkeztutakoekiko lehia askean.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2437

RESOLUCIÓN de 21 de marzo 2011, del Director de Energía y Minas, por la que se otorga a Cepsa Gas Licuado, S.A. la autorización administrativa para la construcción de las instalaciones de almacenamiento, red de distribución y suministro de GLP canalizado en Antoñana término municipal de Campezo/Kanpezu (Álava).

N.º expediente: 01-38068/CG-f-2011-1-PML/mmb.

D. Pedro Pablo Zubillaga López, en nombre y representación de Cepsa Gas Licuado, S.A. ha solicitado con fecha 28 de diciembre de 2010 la autorización de la construcción de las instalaciones de almacenamiento, red de distribución y suministro de gas propano canalizado en Antoñana, en el término municipal de Campezo (Álava).

En la resolución del expediente, es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Con fecha 28 de diciembre de 2010 se presentó por Cepsa Gas Licuado, S.A. solicitud de autorización Administrativa, para el almacenamiento, red de distribución y suministro de gas propano canalizado para usos domésticos y comerciales en Antoñana, en el término municipal de Campezo (Álava).

Dos.– Se ha realizado la correspondiente información pública preceptiva en las condiciones y en los medios previstos legalmente en la Ley 34/1998, de 7 de octubre (BOE de 8 de octubre de 1998), del Sector de Hidrocarburos: publicación en el BOPV el 11 de febrero de 2011, en el BOTHA el 18 de febrero 2011 y en el Periódico El Correo el 27 de enero 2011, así como exposición pública en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Campezo del 24 de enero al 28 de febrero de 2011. Complementariamente a lo anterior, se remitió separata del proyecto al Ayuntamiento de Campezo.

Durante el periodo de información pública no se ha presentado ante la Delegación Territorial de Álava alegación alguna al proyecto, ni tampoco solicitud ni proyecto en libre competencia al presentado por Cepsa Gas Licuado, S.A.

Ebazpen hau zuzenbideko honako hauetan oinarrituta dago:

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Energia eta Meategien Zuzendaritzarena da espediente hau ebazteko eskumena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009ko irailaren 24ko EHAA) ezarritakoarekin bat etorriz.

Bi.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak (1998ko urriaren 8ko BOE) eta gas naturala garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak, eta gas naturaleko instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 27ko 1434/2002 Errege Dekretuak (2002ko abenduaren 31ko BOE) administrazio-baimenaren betebeharra ezartzen dute gasa banatzeko sareak zabaldu aurretik.

Hiru.– 107/1998 Dekretua, ekainaren 9koa, kanalizatutako gasaren zerbitzu publikoaren instalazioei baimena eman eta horiek jardunean jartzeari buruzkoa.

Lau.– Espedientea izapidetzean eta espedientearen edukian bertan, gai honetan legeak ezartzen dituen baldintza eta betebeharrak bete direla egiaztatu da.

Aipatutako legeak eta oro har aplikatzekoak diren bestelako xedapenak Aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Baimena ematea Cepsa Gas Licuado SA-ri Antoñanan (Kanpezuko Udala, Araba) gas propano kanalizatua biltegiratzeko, eta banatzeko nahiz hornitzeko sareko instalazioak eraiki ditzan.

Aurkezturiko proiektuaren memorian eta planoetan deskribatzen dira ezaugarri nagusiak, industria-ingeniari tekniko Jose Luis Aburuza Jáuregui jaunak sinaturikoa da proiektu hori, eta ezaugarriak honako hauek dira:

– 8.334 litroko lur gaineko andel 1 (nolanahi ere, biltegi-zentroko obra zibila hasieratik egingo da, bi tanga edukitzeko) PGL (petrolioaren gas likidotua) biltegiratzeko, erregulazio-ekipoarekin.

– Lurperatutako dentsitate handiko SDR 11 polietilenozko sarea, 40ko eta 32ko diametroduna, dagozkion sekzionamendu-giltza eta banako harguneekin. Sarean, banaketaren batez besteko presioa 1,25 bar izango da; erabiltzaileentzako banaketa eta kontaketa, berriz, 0,15 bar-etan egingo da.

La presente Resolución se basa en los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución, según lo previsto en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (BOPV de 24 de septiembre de 2009).

Dos.– La Ley 34/1998, de 7 de octubre (BOE de 8 de octubre de 1998), del Sector de Hidrocarburos y el RD 1434/2002, de 27 de diciembre (BOE de 31 de diciembre de 2002), que regula las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de gas natural, establecen la exigencia de la autorización administrativa previa para la construcción de redes de distribución de gas.

Tres.– Decreto 107/1998, de 9 de junio (BOPV de 26 de junio de 1998), sobre autorización y puesta en servicio de instalaciones de servicio público de gas canalizado.

Cuatro.– En la tramitación del expediente y en el contenido del mismo, queda acreditado el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidas por la legislación en la materia en cuestión.

Visto los preceptores legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVE:

1.– Autorizar a Cepsa Gas Licuado, S.A. la construcción de las instalaciones de almacenamiento, red de distribución y suministro de gas propano canalizado en Antoñana, término municipal de Campezo (Álava).

Las características principales se describen en la memoria y planos del proyecto presentado, firmado por el Ingeniero Técnico de Industrial D. Jose Luis Aburuza Jáuregui, y fundamentalmente son:

– 1 depósito aéreo de 8.334 l (no obstante la obra civil del centro de almacenamiento se realizará desde el inicio con capacidad para albergar dos tanques) para almacenamiento de GLP con equipo de regulación.

– Red de polietileno SDR 11 de alta densidad enterrado, de diámetro de 40 y 32, con sus correspondientes llaves de seccionamiento y acometidas individuales. La presión media de distribución en la red será de 1,25 bares; la distribución y contaje a los usuarios se realizará a 0,15 bares.

2.– Baimentzen den instalazioa honako izen hau duen proiektuaren arabera egin beharko da: «Kanpezuko Udalerriko Antoñana herrian (Araba) gas kanalizatuaren horniketa egiteko proiektu teknikoa», José Luis Aburuza Jauregui Industria-ingeniari teknikoarena.

3.– Instalazioak honako hauek bete beharko ditu: Gas Erregaien Banaketa eta Erabilerari buruzko Araudi Teknikoan (uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua) ezarritakoa eta haren Jarraibide Tekniko Osagarriak, eta dagozkion xedapen eta arau teknikoak.

4.– Cepsa Gas Licuado SAk urriaren 7ko 34/1998 Legearen 73.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, seiehun eta laurogeita lau euro eta hogeita hamairu zentimoko (684,33) fidantza osatuko du 2 hilabeteko epean, bere betebeharrak beteko dituelako berme gisa. Fidantza hori Euskal Herriko Gordailu Kutxa Nagusian osatu beharko da, eskudirutan, estatuko baloreetan edo banku-abalen bitartez, uztailaren 21eko 1775/1967 Dekretuaren 11. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera. Instalazioak eraikitzeko baimena eman eta bertan ezarritako epean instalazioak eraiki ondoren, eta eskumena duten lurralde-organoek aipatutako instalazioak martxan jartzeko akta edo aktak formalizatu ondoren itzuliko zaio fidantza Cepsa Gas Licuado SA-ri.

5.– Instalazioak abiarazteko epea 24 hilabete baino gutxiagokoa izango da, baimena Aldizkari Ofizialetan argitara eman den azkeneko egunetik zenbatzen hasita.

6.– Obrak segurtasunez egiteko beharrezkoak diren udaleko, probintziako edo bestelako eskumeneko baimen edo lizentziak aparte utzi gabe eta horiek edozein izanda ere eman da baimen hau.

7.– Instalazioetan egin beharreko azterketak, entseguak eta probak, orokorrak nahiz zatikakoak izan, indarrean dauden xedapenen arabera egin beharko dira betiere, eta baimena eskuratu duen enpresak aldez aurretik Arabako Lurralde Bulego honi jakinarazi beharko dizkio idazki bidez, behar den aurrerapenarekin.

8.– Martxan jarri ahal izateko, dagozkion Obra Zuzendaritzako egiaztagiriak eta proben aktak eraginpeko erakundeen erregistro grafiko eta baimenekin aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan, baita as-built planoak ere, horietan sarearen kokapena eta sarea beste zerbitzuekin nola gurutzatzen den zehaztuta.

9.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka Gora Jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita,

2.– La instalación que se autoriza habrá de realizarse de acuerdo con el proyecto denominado: «Proyecto técnico para el suministro de gas canalizado en el municipio de Antoñana - Ayuntamiento de Campezo (Álava)», del que es autor el Ingeniero Técnico Industrial Jose Luis Aburuza Jáuregui.

3.– La instalación deberá cumplir lo establecido en el Reglamento Técnico de distribución y utilización de Combustibles gaseosos y sus instrucciones técnicas complementarias (RD 919/2006, de 28 de julio), así como las disposiciones y normas técnicas correspondientes.

4.– Cepsa Gas Licuado, S.A., de acuerdo con lo previsto en el artículo 73.4 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre, constituirá en el plazo de 2 meses una fianza por seiscientos ochenta y cuatro euros y treinta y tres céntimos (684,33) en garantía del cumplimento de sus obligaciones. Dicha fianza se constituirá en la Caja Central de Depósitos del País vasco, en metálico o en valores del Estado, o mediante avales bancarios según lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 11 del Decreto 1775/1967, de 21 de julio. La fianza será devuelta a Cepsa Gas Licuado, S.A. una vez que autorizadas las instalaciones y construidas en los plazos que se establezcan en la autorización para el montaje de las mismas, los Órganos Territoriales competentes formalicen el acta o actas de puesta en marcha de las citadas instalaciones.

5.– El plazo para la puesta en marcha de las instalaciones que se autorizan será inferior a 24 meses a partir de la última fecha de publicación de la autorización en los Boletines Oficiales.

6.– La presente autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial u otros, necesarios para la realización con seguridad de las obras.

7.– Los reconocimientos, ensayos y pruebas de carácter general o parcial, que según las disposiciones en vigor hayan de realizarse en las instalaciones, deberán ser comunicados por escrito por la Empresa concesionaria a esta Delegación Territorial de Álava con la debida antelación.

8.– Para la puesta en marcha deberá presentarse ante la Delegación Territorial de Álava del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco los correspondientes Certificados de Dirección de Obra, actas de pruebas con los registros gráficos y permisos de organismos afectados, así como los planos as-built donde se determinarán la situación de la red y los cruces con otros servicios.

9.– Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la notificación de esta Resolución, todo ello

eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 21a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2011.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.